

# Plaza > Bizia

De Rerum Natura

Zaldieroa@zaldieroa.com



## Mendia →

### Eider Elizegi > Mendizalea eta idazlea

Desnivel argitaletxearen literatura saria irabazi du, 'Mi montaña' lanarekin. Mont Blanc mendiko Gouter aterpetxean lanean pasatutako udako bizipenak bildu ditu, eta azaroan argitaratuko dute liburua.

## «Mendian bizitakoen isla pertsonal eta intimoa da»

**Ekaitz Agirre** Donostia

Epikotasunari, balentriei eta konkistei lotuta ezagutu izan dugu maiz mendia. Hitz loratuekin jantzitako istorioei beharrez, lekukotasun intimo eta istorio txikietan oinarritutako lan bati emandio Desnivel argitaletxeak literatura saria. *Mi montaña* da lana, eta Eider Elizegi idazlea (Donostia, 1976). **Nola izan duzu sariaren berri?** Potosira (Bolivia) iritsi eta ahizpak jakinarazi zidan, mezu elektronikoz bidez. Ezuste pozgarria izan zen. Lehiaketara aurkeztu aurretik, hainbat argitaletxetan aurkeztu nuen *Mi montaña*, eta erantzun onak jaso nituen. Bertsio laburu bat argitaratzeko zorian ere egon nintzen.

**Zerkontatzen du 'Mi montaña'-k?** Duela bi urte Mont Blancen Gouter aterpetxean pasatu nuen uda, lanean. Mendian esperientzia estatiko bat bizitzea izan zen. *Mi montaña*-k mendia bera du protagonista, eta bertan ikusi nituen mendiaren aurpegiak, aterpetxe-kobizimodua, mendizaleen istorio txikiak eta abar kontatzen ditu.

**Zure bizipenak dira, beraz.**

Testu subjektiboa da, mendiaren isla pertsonal eta intimoa.

**Noiz idatzi zenuen?**

Gouterrera joan aurretik, bizitzera nindoan zerbait idazteko gorputza izan zezakeela ikusi nuen, eta han hasi nintzen oharrik hartzen. Baina ezinezkoa nuen idaztea: 07:30etik 23:00etara



MIKEL TORRABADILLA

lan egiten genuen, eta goizeko ordu bietan gosariak emateko txandak egiten genituen. Altueraren desgastea batuta, benetan nekagarri zen. Handik itzuli eta gutxira, Pirinioetan orkatila hautsi nuen, eta osatzeko garaia aprobeztatu nuen idazteko. Gouterren nengoela etxekoei eta lagunei sakelakotik bidali nizkien mezuak erabili nituen oinarritzat.

**Istoriok gertukoak direla azpimarratu du, hain zuzen, epaimahaiak.**

Muturreko abenturak ez zaizkit interesatzen. Mendizaletasuna, eskalada eta alpinismoa mendien ingurune eder eta bizigabearekin bat egiteko aukera dira; mendia menperatzeko bainoago, mendiarekin eta mendian harmo-

nian elkartzekoa. Alpinismoaren edertasuna ez datza zailtasunean bakarrik. Horregatik, nahiago ditut bizipen txiki eta arruntenak lantzen dituzten liburua.

**Idazlea, mendizalea, bidaiaria... Nor da Eider Elizegi?**

Bizirik dagoen norbait, ikasteko eta bizitza ikertzeko gogo handia duena eta begiradaren bidez hitzak jasotzen dituena.

**Sariaren berri bidaiatzen ari zarela izan duzu, hain zuzen.**

Maiatzean hasi genuen bidaiari Jordi Rovirak eta biok, baina bidaiatzen ia urtebete neraman, Shaqsha izeneko mendiaren argazkia ikusi eta bertara etortzea erabaki nuenetik. Peruko Mendikate Zurian eta Boliviako Cordillera Realen ibili gara, eta Jordi itzuli zenetik neure kabuz nabil. Liburua argitaratzen denerako itzuli konaz, azarorako.

**Vagamontañas blogean biltzen ari zara bidaiaren berri. Akaso emango du liburu bat idazteko horrek ere.**

*Mi montaña* testu estatikoa da, eta testu dinamikoago bat idazteko sortu nuen bloga —*vagamontañas.blogspot.com*—. Liburu bat idatzi nahi nuke, edo ikusentzunezko bat prestatu. Harkaitz eskaladari lotutako liburu bat ere badut, ahizpak diseinatutakoa. Hori ere argitaratuko balitz...



## Buzoia

### Argitalpenak

**DESNIVEL**  
2010eko urria, 291. zbk.



Igo al da Miss Oh hamalau zortzimilakoetara? Galdera horri erantzuteko egin duten ikerketaren berri dakar *Desnivel*-ek. Dario Rodriguez zuzendariak garbi du erantzuna: ez zen Kangchenjungara igo. Portugalgo Algarve eta Pirinioetako Ballivierna mendiari buruzko erreportaje bana ere badakar aldizkariak.

### Ikastaroak

■ **Lasterketa epaile.** EMFk lasterketa epaile izateko ikastaroa antolatu du Gasteizen, azaroaren 12, 13 eta 14rako: [www.emf-fvm.com](http://www.emf-fvm.com).

■ **Orientazioa.** Donostiako Vasco de Campingek GPSa erabiltzeko ikastaro bat antolatu du hilaren 18, 20 eta 23rako. Argibideak: 943-2718 66.

### Proiektzioak

■ **'Begiz begi', Iruñean.** Txantreako Euskaldunen Biltokian Alberto Iñurrategiren *Begiz begi* lana emango dute gaur, 20:00etan.

■ **Hegaztiak.** Gasteizko Landher Montañak antolatuta, *Aves de nuestras montañas* lana emango du Ignacio Garcia-Sernak asteartean, 19:30ean.

### Deialdiak

■ **Argazki lehiaketa.** Donostiako Vasco de Campingek udazkeneko lehiaketa antolatu du. Gaia: fauna eta flora. Argibideak: 943-2718 66.

■ **Irteera Arantzazun.** Arantzazuko Adiskideak elkarteak Aloñara irteera prestatu du igandera. Santutegia Hoteleko kafeategitik irtengo dira, 09:00etan.

■ **EMFk batzarra.** Euskal Mendizale Federazioak ohiko eta aparteko batzarrak egingo ditu hilaren 22an, Gasteizen. Argibideak: [www.emf-fvm.com](http://www.emf-fvm.com).

### Irteerak

■ **Urriak 23-24.**

**Andoain** (Euskalduna) Ibañeta, Azpegi, 24an. Tel: 943-59 22 32.

**Aretxabaleta** (Zaraia) Txulato eta Castillo de Portilla, 24an.

Tel: 943-79 03 34. **Bilbo** (Juventus) Costalera eta Joar, 24an.

Tel: 94-415 19 90. **Donostia** (Antxeta) Irumugarrieta, 24an. Tel: 943-28 17 91.

**Donostia** (Vasco de Camping) Ibarrola eta Pico Nette, 24an. **Eibar** (Deportiboa) Ataun, Larraitz, 23an. Tel: 943-

2019 04. **Ermua** (Artarrai) Mugarri Mugarriz, 23an. **Errenteria** (Urdaburu) Zilbeti, Bizkarreta, 24an. Tel: 943-52 78 79.

**Gallarta** (Gallarreta) Leongo mendiak. Tel: 616-22 16 04. **Gasteiz** (Gasteiz) Torada eta Peña Alta de Dobro, 24an. Tel: 945-25 03 54.

**Iruñea** (Donibane) Arriel, 24an. Tel: 607-30 38 16. **Iruñea** (Txantrea) Pirinioetara. Tel: 630-81 38 83.

**Leioa** (Leioa M.T.) Elimendi, 24an. Tel: 689-72 19 17.

**Markina-Xemein** (Artibai) Solpico, 24an. **Olazagutia** (Sakanako Mendizaleak) Pirinioetara: Oza, 24an. **Pasai Antxo** (Jaizkibel) Mugarrien Ibilbidea, 24an. Tel: 943-51 74 00.